

Artikutzako ttantak



Artikutza
Natura


11

Zenbakia
2016-ko Udaberria-Uda

Telefonoa: 690 720 264
www.donosia.es/artikutza
artikutzanatura@donosia.es



adurkibideak



ELKARRIZKETA

Joxe Mari Mitxelena eta Anton Mendizabal.....4

HARITIK TIRA

Sutearen ondoren Zer?.....8

ARTIKUTZA IRUDITAN

Egun sentia Bianditzeko mendi-lepotik.....10 - 11

BILDUMARAKO

Orkatza (*Capreolus capreolus*)12

BARRU BARRUTIK

Artikutza eta Natura eskoletara hurbilduz.....13

Artikutza GKL15

ARGAZKI GALERIA



e lkarrizketa

Joxe Mari Mitxelena eta Anton Mendizabal Pilotasoroak Artikutzan

Artikutzan badira ohiko bideetatik aparte gelditzen diren txoko eta gunek, beste batzuk aldiz, gertu ditugu baina kuriositate bereziarekin begiratzen dituzten begiek soilik ikusten dituzte. Gure elkarrizketatuak horietakoak dira, euskal pilotaren antzinako joko modu desberdinak ikertzen eta ezagutzera ematen ari diren Oiartzungo Txost taldeko kideak.

1. Zer dira eta nola jakin dezakegu pilotasoro baten aurrean gaudela?

Mendian dauden pilotan jokatzeko hormarik gabeko eremu laukizuzenak dira *pilotasoroak*.

60 metro luze eta 15 metro zabal dituztenak dira normalean, baina neurri txikiagokoak ere izan daitezke. Mendi lepoetan kokaturik, belar zoru laua izaten dute eta bailarak lotzen dituzten eremu estrategikoetan daude gehienak. Cromlech edo harrespilak eta baselizak ere nahiko gertu agertzen dira maiz, baita zenbait herriarteko edo auzoko mugak ere. Normalean hegi txiki baten babesean egoten dira, ikusleek pilotalekua ongi ikus dezaten.

2. Artikutzan izen hori bera duen toponimoa dago, baina Artikutzan pilotasoro gehiago egon zitezkeenaren susmorik al daukazu?

Bai, badago Pilotasoro toponimoa Artikutzako



mapetan, baina kokapen zehatza ez dago argi. Aranzadi Zientzia Elkarteak eginitako mapak "Aku" inguruan kokatzen du eta Nafarroako Gobernuarenak "Larre" inguruan. J. Cazaubon, pilotasoroen katalogazio egileak, "Aku" aipatzen du bere testuetan. Artikutzako basozain eta bertako biztanle Paskual Gamio zenak berriz, "Larren" zegoela uste zuen. Bai "Aku" eta bai "Larre" Beltzuntza mendia- ren magalean daude, eta bi kokapen hauek oso ongi betetzen dituzte pilotasoroak izateko behar diren ezaugarriak... agian biak izango ziren.

Dena den pilotasororik ikusgarriena "Goizarin- goa" da. Hau gainera dokumentuetan azaltzen da. Susmoak baditugu "Egazkikoa" eta Artikutzako gaurko frontoiaren eremua ez ote ziren ere pilo- tasoroak izango, baino ez dugu dokumenturik aur- kitu gaur arte.

3. Pilotasoro horietan "joko zuzena" jokatzeko zen. Azalduko diguzue modu laburrean zer den joko zuzena?

Joko zuzena deitzen zaio ez delako pareta edo



Goizaringo Pilotasoroa ARGAZKIA: Anton Mendizabal



horma baten aurka jokatzeko. Aurrez aurre aritzen ziren, 4 edo 5 pilotariez osaturiko bi taldetan banaturik. "Kintzeak" eta "jokoak" zituzten kontatzeko modua, gaurko tenisa mantendu duen kontatzeko era bera.

4. Zenbat joko zuzen mota ezagutzen duzue?

Euskal Herrian une honetan lau modalitate daude bizirik: **Bote luzea** (eskuz), **Pasaka** (eskuz eta larruzko laxoaz), **laxoa eta errebotea**. Bazen beste modalitate bat, **mahai jokoa** izenekoa, baina guztiz galdu dugu.

Europar berriz Bote Luzearen oso antzekoa den jokoan aritzen dira gaur egun: **Kaatsen** (Herbeheretan), **Balle pelote** (Belgikan), **Pallapugno** (Italian), **Longue Paume** (Frantzia), **Llargues** (Valentzia)...

5. Valentziako aipatu duzuen Llargues pilota jokoa, nahiz eta bote luzearen tankerakoa izan, han kalean jolasten zen bitartean, hemen mendian jokatzeko zen. Zer dela eta?

Valentziarrek esaten dute Jaume I-ak XIII. mendean eraman zuela inguru horietara joko modu

hau. Jaume I Montpelierren jaioa zen, Nafarroako erresumatik oso gertu.

Valentziar gehienak hiritarrak ziren, hiritik kanpo oso jende gutxi bizi zen. Euskal Herrian alde- rantziz, eta hiriak sortu baino lehenagotik jokatzeko pilotan. Euskal Herrian daukagun dokumenturik zaharrena VI. mendekoa da, 583 urtekoa hain zuzen ere, preso baskoiek jokatzeko zuten garaikoa.

Dena den, Euskal Herrian ere kaletan jokatzeko



zen zuzenean. Pilotasoroetan belar gainen jokatzen den bezala, pilota-plazetan berriz, lur gainean jokatzen zen da; adibidez Arantzan 1885ean Arantza – Hernani desafio famatua jokatuko omen zen kale nagusian.

6. Mendian edo herri gunetatik urrun jolastu izana izan daiteke joko mota hauen beheakadaren arrazoia? Edo ba al dago besterik?

Joko zuzenak herri gunean ere jokatzen ziren eta jokatzen dira. Pasaka udaletxetako arkupetan jokatzen da adibidez, eta bote luzea, herriko plazaren erdian.

1840 urte inguruan, pilotak goma edo latexarekin egiten hasi zirenean, horma baten kontra jokatzea posible zela ikusi zuten. Aurrerago ezker paretako frontoiak eraikitzen hasi ziren, eta horrek ekarri zuen modalitate berrien arrakasta eta profesionalizazioa joko zuzenen kaltetan. Ezker paretako lehenengo frontoia 1877koa da, izen handiko autore desberdinek diotenez, Donostian Atotxan zegoena hain zuzen ere.

Gain era, Europako gerrak Iparraldean eta 1936ko gerrak hegoaldean, joko zuzenen kaltetarako izan ziren, ia desagerrarazteraino.

Dena dela joko zuzenak ez dira sekula desagertu eta gaur egun zorionez, berpizten ari direla esan dezakegu.

7. Artikutzako pilotasoroetan artzainak, baso mutilak, edo zein jende mota bilduko zela uste duzue? Bertakoak soilik edo inguruko herrietatik bertan bilduko zirenen susmoa duzue?



Pasaka Artikutzako frontoian ARGAZKIA: Anton Mendizabal

Lehen aipatu bezala aktibitate handiko gune ezberdinak lotzen zituen leku estrategikoetan egoten ziren pilotasoroak eta pilotaz gainera azoka, dantza eta denetarik izaten zen leku horietan. Hasera batean artzainak izango ziren pilotasoroetan jokatzen zutenak, baina Goizarinen adibidez, baita meatzariak eta baso mutilak ere. Pilota-plazetan baso mutilak jokatzen zuten batez ere eta herriko bertako biztanleek ere.

Jokoan ibiltzen zirenak ez ziren Artikutzako bertakoak bakarrik izaten; Oiartzundik, Lesakatik, Arantzatik, Goizuetatik eta Aranotik etorritakoek

ere jokatzen zuten. Gure ustez pilotasoroa izan daitekeen Egazkikoaren inguruan, Artikutzatarren eta Arantzatarren arteko liskarra nahiko ezaguna da.

8. Artikutzako pilotasoroetara buruzko idatzizko informaziorik topatu al duzue?

1857ko dokumentu batean, zehazki “Amalia” izeneko meategi baten kontzesioan, azaltzen da meategiak hegoaldera Goizarinekin muga egiten duela eta mendebalderantz “juego de pelota” deituriko parajearekin...



Larre ARGAZKIA: Anton Mendizabal



Artikutzako pilotasoroak izan zitezkeena-
ren kokapenak (A. Mendizabal)

Horrez gain, mapetan azaltzen den lehen aipaturiko “Pilotasoro” toponimoa daukagu.

9. Duela bi urtetatik honantz, Artikutzako jai egun bakarra den San Agustin egunean, pasaka modalitatea ikusteko aukera izaten dugu herriko frontoian. Berreskuratzeko bidean dagoen jokatze-ko modua dela esango zenukete? Jende askok jokatzen al du modalitate hori?

Eskuzko Pasakak indar handia hartu du azkenaldian, batez ere Gipuzkoako lurraldean. Pilota goxoekin jokatzen da eta horrek asko errazten du partaidetza. Ez du eskuko minik sortzen, joko azkarra eta bizia da; indarrak gain, abilitadea, malizia, bizitasuna, burua eta estrategiak zerikusi handia dauka jokoan. Gizonez gain emakumeak ere animatu dira joko honetan ibiltzera eta emakumeen arteko taldeak eta partida mistoak eskaintzen ditu gure taldeak.

Disfrutatze eta disfrutarazteko oso egokia da. Pilota “beste” era batera gozatzeko aukera ematen du eta etorkizuna ikusten diogu joko zuzen honi.

H

artik tira



ARGAZKIA: Jesus Rubio



ARGAZKIA: Iñaki Uranga

SUTEAREN ONDOREN ZER?

Gogoan izango dituzue aurreko udazkenak ekarri zigun lehortea eta honen ondorioz 2015 urte amaieran Penintsulako hainbat tokitan izan genituen suteak. Artikutza izan zen suak kaltetutako eremuetako bat, Arantzan hasitako suteak, haizearen eraginez Artikutzara hedatu eta barrutiaren ipar-mendebaldeko 31 bat hektarea hartu baitzituen.



ARGAZKIA: Jesus Rubio eta J.A. Apezetxea

Suteak beti dakar berekin kalte nabarmena, eta aberastasun handiko basoak direnean, basoa erre-kuperatuko ote den izaten da kezka. Sutearen ondoren birsortze ziklo bat hasiko da, baina garapena ezberdina izango da suteak eragindako kaltearen arabera, kokapenaren arabera, baldintza klimatologikoen arabera, baso motaren arabera ...


Baldintza berri horietara hobeto egokitzen diren landare komunitateak agertuko dira lehenik: ote, isats eta txilarrak esaterako, espezie aitzindariak dira eta gai dira kiskali berri diren lurzorua kolonizatzen. Hauek azkar estaliko dute lurzorua, eta higadura ekidingo dute. Gainera, landare hauen presentziarekin, materia organikoa pilatuz joango da, kaltetuta zegoen lurzorua aberastuz eta honen emankortasuna handituz.

Horrez gain, lehenengo landare horiek agertzearekin, animaliak erakarriko dira eszenatoki horretara. Animalia hauek, haziak barreiatzen lagunduko dute, eta ekosistema erre-kuperatuz joan daiteke horrela.

Espezie aitzindari hauek hazten doazen heinean, itzala emango dute, eta espezie berriak agertzeko baldintzak sortuko dituzte. Poliki-poliki, sastrakadia zuhaixkez beteko da, eta urteen poderioz, eta baldintza egokiak ematen badira, erretako gunea berriz baso izatera irits daiteke; askotan harkadak behar izaten dira horretarako.



Sutearen ondorengo segida ekologikoa



Erretako gunean sortutako txilardia

Suteengandik onura lortzen duenik ere badago:

Okilek erreta eta erdi hilda dauden zuhaitzetako kakalardoekin tripa ederki betetzen dute.


Morchela bezalako ondoak, suteen ostean ugari hazten dira. Beren mizelioak suteekiko erresistentekoak dira beste ondoenak baino eta ez dute lehiakiderik.

Erretako gunetan maiz ikusten da Arrano sugezalea suteak utzitako narrastiak "ehizatzen". Janari erraz eta azkarra lortzeko modua.

Urtegia eraiki zenean landatu ziren zuhaitz exotikoen artean, Estatu Batuetako sekoiak baditugu Artikutzan. Honen haziak pinaburutik ateratzeko sute baten tenperatura altuak behar ditu. Suari aurre egin ahal izateko moldatuta dago 50cm-ko lodiera har dezakeen bere enborreko azal lodia eta tanino deitzen den substantzia bati esker.



ARGAZKIA: Jesus Rubio




bilduma fitxa

Orkatza, *Capreolus capreolus*

Ugaztun iheskor hau basoetan aurkitzen da, baina ez da ikusten erraza, bere entzumen eta usaimen finari esker azkar ohartarazten da gure presentziaz. Adarregatik eta itxurarengatik, oreinarekin nahaste dute batzuk, baina kontuz, askoz txikiagoa da orkatza! 10 urteko ume baten pisua besterik ez du orkatzak, eta oreinak 200 kg pisatzera hel daitezke!

Belarjalea da eta landareen zati elikagarrienak erabiltzen ditu elikatzeko, izan ere, bere heste laburrekin ez baitio etekin handirik ateratzen jandakoari. Urdail txikia duenez, jatordu motz eta sarriak egiten ditu.

Jandako adartxoak ikusten badituzu, begiratu ea orkatza edo erbia izan den:



Salto bikainak egiten ditu! Altueran 2m har ditzake, eta luzeeran, 6m aurreratzeko gai da. Baina oso alperra da, eta beharrezkoa denean bakarrik egiten du.



Ilaje marroi-grisaska du oharkabean pasatzeko egokia eta urtean birritan ileberritzen da. Kumeek, orbak zuriak dituzte.



Arrak adarrak ditu, emeak ez bezala, ia adarkaduragabeak. Udazken bukaeran erori ohi zaizkie, eta 3 bat hilabeteetan, aurreko ak baino handiagoak diren adarrak izango ditu. Adarrak hazten ari zaizkien bitartean, ileguri moduko batez estalita egongo dira, eta zuhaitzen kontra igurtziz kenduko dute.

NOLA BEREZI NEGUAN ADARRAK

ERORTZEAN ARRA EDO EMEA DEN?



Abuztu aldera sartzen dira araldian (orduan entzun daitezke arren zaunkak), eta maiatza inguruan jaiotzen dira kumeak. Ernaldu ondoren enbrioaren garapena gelditu egiten da, kumeak neguko baldintza txarretan jaiotzea saihesteko. Inguruko baldintzak aproposak direnean eta emea ondo elikatuta dagoenean, hormona batzuk jariatzen ditu, haurdunaldia berriz aktibatuz.



Basoan orkatza ikusten ez baduzu ere, begiratu lurrean, agian bere oinatza edo udazkenean eroritako adarren bat topatuko duzu, **XAGUEK JAN EZ BADUTE!**

ARGAZKIA: Jesus Rubio

arru barrutik



ARTIKUTZA ETA NATURA ESKOLETARA HURBILDUZ



500 ikasletik gora espero dira udaberri honetan Artikutzako Natur Eskolan. Batzuk egun pasa etorriko dira, eta besteek aterpetxean igaroko dute gaua. Guztiek Artikutzako paisaiez gozatzeko aukera izango dute, gelan liburuetan ikasitakoa bertatik bertara ikusteko aukera eta naturaren sekretuak ezagutzeko errespetatzen ikasiko dute. Ikasmila bakoitzari egokitutako edukiak landu, aire librean jolastu, kuriositatea piztu, ikertu ...


Ekitzen artean, hona hemen ikasle nahiz irakasleek azpimarratzen dituzten batzuk:

BASOA EZAGUTZEKO PISTA JOLASA

Artikutzari eta naturari buruz dakiten guztia erabili beharko dute taldeka pistak aurkitu eta altxorra topatzeko!

ERREKAREN AZTERKETA

Benetako ikerlari sentituko dira erreko parametro ezberdinak neurtzen eta aztertzen, eta baita erreko bizidunak behatzen ere.





IBILBIDEAK BASOTIK

Baso ezberdinak, animalien aztarnak, garaian garai-ko landaredia, ikazkinen bizimoduaren isla diren txondor plazak ... Taldeka banatzen zaien poltsetan duten materialaren laguntzaz, basoa eta bertako bizidunak ezagutzen joango dira Lehen Hezkuntzako ikasleak.

BIODIBERTSITATEAREN AZTERKETA

Bigarren Hezkuntzakoek, ekosistema ezberdinak aztertu eta konparatu ahal izango dituzte bertatik bertara, landareak identifikatu, espezieen arteko harremanak behatu ...


INFORMAZIO GEHIAGO:

www.donostia.eus/artikutza
artikutzanatura@donostia.eus



ARTIKUTZA GKL

2004. urtean Artikutza GKL izendatu zen eta 2015. urtean bere Kudeaketa Plana onartu eta KBE kategoriara pasa zen. Baliteke horrenbeste laburduraren esanahia eta zertarako balio duten galdetzea.



Natura 2000 Sarea: ingurumenaren aldetik interes handia duten lurralde edo tokien sarea da, Europako basa-fauna eta flora espezie guztien eta habitat naturalen lagin adierazgarriak barneratzen dituena, epe-luzera beren biziraupena bermatzeko. Partaide den herrialde bakoitzak proposatzen ditu Natura 2000 Sarearen parte izatea nahi dituzten lekuak.

Nafarroan 42 GKL izendatu ziren guztira (azalaren %24) eta hauetatik 23 KBE kategoriara pasa dira. Gainera 17 HBBE daude.

Euskal Autonomia Erkidegoan lurraldearen %20.5 Natura 2000 Sarearen barruan dago sartuta, 52 GKL-etatik 44 KBE eta 8 HBBE izendatu dira orain arte.

Artikutzaz gain, esaterako Bardeak eta Bertiz ere dira Sare Europear honen parte Nafarroan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar, Urbia, Urkiola, Zadorrako urtegia... dira batzuk.

Kudeaketa Planean proposaturiko babes neurriak aurrera eramateko, gidatze-batzorde bat eratu da Nafarroako Gobernuko ordezkariak, Goizuetako Udalak eta Donostiako Udalak osatua. Urtarrilaren 15ean elkartu zen lehen aldiz batzorde hau Artikutzan, Kudeaketa Planean aurreikusirik dauden neurriak premiazkoenak martxan jartzeko balio izan zuen.



argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bitxi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.eus.

Argazkiarekin batera zure izen - abizenak, ateratako lekuaren izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.



Izenburua: Bizitzaren lekukoak
Tokia: Ferokarril zaharraren bidean
Egilea: Jose Luis Paulin Seijas



Izenburua: belarriak zuhaitzean
Tokia: Erroiari
Egilea: Margi Iturriza



Izenburua: Eskulapio
Tokia: Artikutza
Egilea: Iñaki Uranga



Izenburua: Nicrophorus vespillo "reciclator"
Tokia: Elamako pista
Egilea: Margi Iturriza

Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.eus helbidera eta posta elektroniko bidez jasoko duzu.

